

**BIZKAITARRAI-
BIZKAIERAZ***

www.euskerazaleak.biz

307n. zenbakia

bagilla 2005



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE

KANARIETA'N TXANGOLARI

“GUANTXE” AIENETUEN LURREAN

Aurtemein, Sondika'ko aideportutik iru ordu exkaxeko egaldiz, kuku-loa egiteko betaz, Kanari Aundia'ko Las Palmas'en gera. Taxi batek ogeitsu minutun ogeiren bat kilometrura dagoan urira aurretiaz erreserban arturiko hotelean uzten gaitu.

Oargarri da egazkiñetik jetxi orduko, negu gorrian Euzkadi'tik gatozenentzat emengo giro epel eta eguzkitsua.

Berokirik ez dugu emen bear. Alare, neguan onera etorri ezker, ez beza ifork pentsa udako beroa danik, Las Palmas'en beintzat. Udaberritsua da emengo giro gozo, askorentzat bekaizgarri, beroaldi aldartetsua, gorabera zenbaitekin, alegia.

Kanari Aundia deritzan ugarte au, ugartediko (zazpi izaroz eratu) biztanletsuena dugu. Luze-zabaleraz Gipuzkoa ortxe-ortxe, nere ustez. Europa'ko turismoak bertan ditu jarriak, nagutean batez ere, bere begiak.

Kalez-kale ikusten eta pentsatzen.– Hoteletik irten orduko auxe ikusten dut txuritu berriko pareta batean, errotuladoren idatzita: “Godos fuera!” (Peninsularrak kanpora, alegia). Idazkun berbera askotan ikusiko dut nun-nai idatzirik. Zer esan nai duan agerian da. Zapuzgarri zaiela kanariarrai Madrid eta bertatik lege estuz datorren agintekera latza. Bai ote du zentzurik nai orrek?

Buruko eiaran zurrumbilloka dabilzkit pentsamenduak. Begira, Ameriketa aurkitu ondoren, orduko gaztelarrak emen lurrartu zuten eta nagusiki danaz jabetu. Bertako bizilagunak, garai bateko “*guantxeak*” izenez ezagunak, espainarren mendu gelditu ziran. Eta gaur arte!

“Guantxe” diralako auen zantzurik ezin esan dagoanik. Nik beintzat ez dut idoro. Ez erreus ta arrastorik. Ez aien aztarnak eta lorratzak. Jakiña!, ez dut artarako denborarik izan ere. Mintzaira berezirik bai? Ditekeña. Deitura ta toponimiatic bereiz (Guantarteme, Guayadeque, Timanfaya, e.a.) ez dut uste besterik edota geiago dagoenik. ez dut bertako edesti-libururik irakurtzeko astirik izan, ezago ezer aztertzeko ta ikertzeko. Beraz, bego bai, nere aldetik esanik daukadana. Arkeologiak ez digu gauza nabaririk azaldu. Etnologiak izango du zer-esana.

Inoren menpe ezin-egonaz askotxo dakigu euskaldunok. Kanariartasuna ernaraziz txalogarri dabilz bertako ainbat abertzale, gizartea gero-ta kontzientziatgotzen. Bejondaiela!!!

Bolkan-lur eta izadi-gune interesagarriak.– Uste baiño menditsuago da Kanari Aundia. Leen begiratuan ez dirudi eder eta ikusgarrikerik ezer daukanik. Uriak beintzat, ez. Baiñan ezin esan onuntz-aruntz ibilliz izadi-une bikaiñik ez daukanik. Ez da noski gure Euzkadi bezain orlegitsu, belartsu ta buztintsu, bolkan-lur elkorrez eratu bait-dago, auskalo noiz bertako garmendiak sugarretan ixuritako gai goriak, aldien barrena, oztu, trinkotu ta beztuak.

Ugarte osoaren inguruketa, nai ezker, ongi diteke berebillez, errepidez ongixto dago-ta ornitua izaro au. Nolanai joanda ere nabarmen jarriko zaizkigu agiri-agirian dauzkan gune gune zudugarriak, bertakoentzat ezezik baita kanpotarrentzat ere.

Erdiruntz jorik (borobiltzua jo bait-diteke izaro au) ba'goaz errepide biurgunetsutan barrena toki berriak ezagutzera. Tan Bandama'ko kratera jartzen zaigu begibitan. Zirraragarria.

Sakoneraz berreuntsu bat metrokoa. Eta diametroz kilometro urrikoa. Zenbait errixka txuri igaroz, milla metrotik goragoko gaillurretatik begira orratz lekune zakar bat. Unamuno'k “arri biurtutako ekaitza” deitu omen zion paraje oni.

Monolitoak.– Egara onen inguruetan aurkitzen dira monolito batzuk. Izentsuena “*Roque Nublio*” deritzana da. Oillarkiro zutitzen da bere antropologizko ertz itxurapean. Ederra benetan. Zeru urdin neurrigabeen eguzki dirdaiak biziki ederragotzen du. Monolito mitiku ta totemikua! Bertakoentzat emozio-sortzaille ta adierazgarri zolikoa, neronek entzundako abesti biurtua, goxoki mamitua.

Dalako monolito onen irudi-argazkia dendetan eta toki askotan dugu ikusgai, kanariar erriaren irudikur antzera. Geologizko eraketa bakana da. Onen silueta zorrotza ugarte-puntu askotan begietaraten zaigu. Bertatik, begi utsez naiz ikuskailluz urrutitxoan dagoen Tenerife izaroko Teide mendi gaillurtsua, sarri erpiñean zuriz elurtua ikus daiteke zenbait egunargi argitsuetan.

Zerikusi geiago.– Biaremonean autobususez egin genduan Teror deritzan errira bisita. Kanariar errixka polita. Emen begiragarri zaizkigu izaro ontan kanariar tipiko diran zurezko ta ximenki landutako balkoi itxi-apaiñez eraikitako etxeak. Erri goitsu ontan aurkitzen da *Piñu'ko Ama* Birjiñaren santutegieliza. Izaroko zaindari zerutarra. Igandea. Etzan bero kaletan, ez arraiotan! Toki otz ta aizetsua, goizean beintzat. Eliza meza-entzulez gaiñezka. mezatan, meza-emaillearen “*el Señor con ustedes*”ek (gaiñerantzeko tokitan “con vosotros” esan ordez) oso xotilla iruditu zitzaigun.

Ola-alako errepidetan barrena Arucas deituriko irira eldu giñan. Salgai-ekarle igali-banatzaille dugu. Plantanodi-zelaigune.

Itsas-ertza.– Itsas-egala da kanpotik edota atzeritik datozenentzat tokirik erakargarriena. Ta aberatsa da itsas-egalez Kanari Aundia. Oparo erakusten du ugarte onek beste sei ugarteok erakusten ez dutena: ondartzeta naturalak, ondar mee ta leguneko ondartzeta edatsuak. Las Palmas'ek berberak iru km. luzeko ondartzeta eskeintzen digu palmondoz ertzatua. Itsasaldetik, berriz, babesgarri zaion arroka-talde batek igaritegi aproposa ta osoa eratzen du.

Las Palmas'eko “*Las Canteras*” deritzan ondartzeta onek, iparraldekoa danez, berarekin dakar sarri aize ozkirria. Au dala-ta, bekosko illuan-aizetsu jartzen digunean, egora jotzea onena. “Maspalomas” deritzanera, aremuin ta ondartzeta luze ta zabaleko lekua, baia alajaña. Jendea, gazte ta gaztetzakoak, erruz biltzen du, baiñan ba'da bertaraten diranentzat eta eguzkia artuz gorputza beltzerandu nai dutenentzat, nai beste toki eta baita bilux ibiltzeko artarako tokirik ere. Tamalgarriena da, leen oiesa edo basatia izandako leku ondartsu au, otelez ta landetxez neurritz gora betetzen ari dala.

Kilometro batzuk aurreraxeago ba'da beste ondar-toki bat, Puerto Rico deitua. Txikia izatean zekarren bere politasuna. Sorreran ezagutu nuanean, erdi-artifiziala bait-da, gaur oso ondatur deritzait, jendez, txalai ta bestelako etxez erdi itoa.

Edozein ikuspegitik begiratuta, oso erakargarria dugu Kanari Aundia, gorputza lakete-eske ari zaigunean batez ere.

EUZKADI'TIK, GAUR, EUZKADI'RA BEGIRA AZKENEKO AUTESKUNDEAK EUZKADI'REN ETORKIZUNA

Itun utzi naute, atzo, Jorraillak 17, Jaurlaritza berri bati sortzea emateko Euzkadi osoan ospatu ziran auteskundeak. Neri ez dit kezkarik ematen autarki oietatik irten daitekean jaurlaritzak, Jaurlaritzak lurraren azaletik sortzen diran loreak bezalakoak bait dira. Orregaitik, nere jaurlaritzak sortzen dituan lurak ematen dik kezka. Gure artean benetako, egiazko jaurlaritza euskaldun bat sortu dezakean lurra galtzen ari gerala bait dakust.

Ni ez naiz Alderdi-gizona. Nere Alderdia Kristautasuna da, gero Euskera, eta geroago Askatasun Osoa, eta naiz ni oso-osoa izan separatista, Joan Joxe gure Lendakaria bezala, une bakoitzean lortu daitekean askatasunaren zatia lortzen saiatzearen aldekoa naiz, ez “dana batean edo ezer ez” oiuka dabilzan oiek bezala Euzkadi-ondatzaile oien antzekoa.

Eta kristaua naiz. Gaur ez dugu Euzkadi'n egiazko Alderdi Kristaurik, naiz autarkirik geien-geien-geienak kristauak izan, gaurko EAJ ez da osoki alderdi kristaua, ez da ARANA GOIRI-tar Sabin Aundiaren eskuetatik irten zan Alderdia, ez lanerako kementasunez, ez erlijioari-buruzko zintzotasunez.

Egia da ALDERDI orrek bere izenean Jaungoikoaren izena daramala, alderdi JELTZALEA'ren J ori “JEL”en lenen izkia dalarik, “JAUNGOIKOAREN” adigarria bait da, JAUNGOIKOA TA LAGI ZARRA izan bait zan Sabino'ren ikur-itza.

Gure Alderdi Jeltzaleak, ordea, azturik dauka bere izeneko JELTZALETASUNA.

Ta zer esanik ez Alderdi Jeltzalearen izparringia dan “DEIA”ri buruz, naiz izparringi orri bizia eta bere idazleei jatekoa damaien dirua, ia osoki kristauen dirua izan.

So degiogun, ordea, auteskunde auek laga diguten “paj-saje” edo ikuspegiari.

Gaur eun, egia da alderdi abertzale guztien autarki edo “botoak” alkartu ezker, EUZKADI'n abertzaleak espainizaleak baiño geiago dirala. Ikus:

Abertzaleak: EAJ-EA: 463.873; EHAK: 150.188; ARALAR: 28.001.

Guztira 642.062

Españizaleak: PSE: 272.429; PP: 208.795; UA: 4.132
Guztira: 550.287.

– Era ortan, alde batetik abertzale danak eta bestetik espainizale guztiak zenbatuz, geiago gera albartzaleok, baiña soilki 91.782 autarkiz. oso gutxi oiñarri sendoagorik gabe EUZKADI'ren askatasun osoaren billa joateko. Askoz'eta askoz geiago aundiagoa bear dugu EUZKADI'n askatasun osozko ERREPUBLIKA sendo bat eratzeke.

– Bestalde, autarki abertzale guztiak batuz lortu ditugun 642.069 autarki oiek oiñarritzat artuz atera dugun 91.782'ko geiengo txiki ori ez da ziurra, geiengo ontan sarturik bait daude EHEAK'ren eta ARALAR'en autarkiak eta nolako jardunbidea artuko duten eta zer egingo duten jakiterik ez bait dago. On baiño gaitz geiago seguruaski.

Gauzak orrela, oiekin osotatu joa jaurlaritza, “ingobernable”, izango litzake, ots, “jaurrikaitza da”.

Orregaitik, ez da arritzekoa izango, berriro, guk uste baiño leenago, ostera, auteskundeak egin bear izatea.

– Danadala, ez da naikoa gaurko gure geiengo askatasungintzan asteko.

Orregaitik, gudan il ziranek eta Franco'k fusillatuek eriotzakoan bezala ¡Gora Euzkadi askatuta! deadar egiñez EUZKADI'ren yaretasun osoaren alde –ez nolana, zuurki baizik– lan egiteaz aztu gabe, EUZKADI'ko biztanleak abertzale bihurtzea da EAJ'ren eta EA'ren lanik bear-lanik bearrezkoa.

Ta, zoritzarreko egun batean bereizi ziran bi Alderdiok, ¿ez ote daitezke, EUZKADI'ren onerako, egun zoriontsu batean alkartu?

1.799.500 dira Autarki emateko eskubide-dutenak. Oietatik abertzaleak 649. Gaiñerako guztiak (autarki zuri edo autarki ustel-emalleak eta autarki eman gabe gelditu diranak, EUZKADI'gaitik ajolik ez zaielarik, danoiek ere etsai ditugulako, oiek danak zenbatuta), 649 abertzaleon aldean, (1.799.500 - 649) 1.789.851 dira gure etsaiak.

Ori... ¡Naparroa'ko eta Iparraldeko estadistikarik aipatu ere egin gabe!!! Badute gure politikariek, txatxukerik eta norberekoikerik utzita zertan lanik egin!

**LATIEGI ETA ERASO'TAR BIXENTE
EUSKERAZAINZAKOIA
BITORI
945.23.31.40**

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*



**ALDIZKARI ONEK
BIZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU**

BAKIOKO MAPA TOPONIMIKOA ETA KALE IZENDEGIA

Danon argibiderako, urrengo zerrendako izenetan, batetik, izki andiak erabilia idatzi doguz toponimiatik arako leku-izenak, agoz zein idatziz batutakoak. Izki txikiak erabilia, bestetik, kaletegi istorikotik artutako izenak zein geuk asmaukoak, izen espezifiko utsak izan edota generikoak diranak, eta atzizkiak. Asmoa izan da, toponimiatik arako izena zein dan jakin eragitea. Azalpenetan, ostera, baltzago idatzi doguz danetariko leku-izenak zein kale izenak eurak be. Beste leku-izen batzuk, barriak, 1955. urterik gorakoak, izki etzanak erabilia idatzita dagoz. Idatzizko erreferentzietan, izenak eurak euskal toponimoak izan arren, erderearen grafiaz dagoz idatzita erabili doguzan agiri eta paper gutzietan. Urtea iragarten dogunean, erabilitako paperetan zein urtetan topau dogula izena adierazo gura dogu, ostera, urtea iragarri barik agertu ezkeron, agoz batutako izena izan dala adierazo gura dogu.

ALBOBIDE: Bide edo kale luze-luzea izan eta kale orren ibilbidean leku-izen asko egonda, euskal kale izendegi istorikoa erabiltea ebatzi dogu. **Zubiaurrealde** (1635) eta San Pelaio (1565) alderdian egongo da. Bakioko urigunearen eskoiko alboan lotuko da kale ori. Ortik bada, daukan izena. Bide nagusizat artu dogu.

ALDATSA kalea: Bertan inguruan egoan soloaren izena imini deusogu kale orreri, Aldatsa (1910) izeneko soloa **Zubiaurre** (1646) aldeetxekoa izan zan.

AMORENAETXEBARRIKO BIDEA: **Amorenaetxebarria** (1769) izena da aldeetxe orren jatorrizkoa, gaur egun areri **Amuetxebarri** (1818) esan arren. Ara doana erakusten deusku kaleari iminitako izenak. **Amorenaetxebarriko bidea** izena 1953. urtean agertu da idatziz leenengoz.

ANBIETAKO barrenkale: **Anbieta** (1890) da bertako lurraren izena. Solo andi-zabala izan zan, **Minituatzea** (1682) etxekoa da alderdi orretako solo zatia. **Uribarrena** (1931) izeneko etxetik **Portuondo** (1810) eta **Benta** (1775) etxeen arteko bidera jotzen eban beste bide bat egoan, **Anbietako bidea** izeneko (1935). Kale barri bi eukiko doguz orain, bada, **Anbieta** izandako soloan, bata goian eta bestea barrenean.

ANBIETAKO goienkale: **Anbieta** da bertako lurraren izena. Solo andi-zabala izan zan, **Minituatzea** etxekoa alderdi orretakoa. **Uribarrena** izeneko etxetik **Por-**

tuondo eta **Benta** etxeen arteko bidera jotzen eban beste bide bat egoan, **Anbietako bidea** izeneko. Kale barri bi eukiko doguz orain, bada, **Anbieta** izandako soloan, bata goian eta bestea barrenean.

ARBEEKO BIDEA: Sarritan agertuten izan da **Arbeke bidea** (1930) izena erabili doguzan paperetan, batzuetan **Arbealdeko bidea** (1931) izena be agertu da. Agoz be **Arbeke bidea** izena entzun dogu geienetan.

AREAGAKO BIDEA: **Areaga** izeneko aldeetxearen leenengo erreferentzia 1704koa da. Geroago baten, **Areagaetxebarri** (1826) izena be agertu zan. **Areaga-ko bidea** izeneko 1888. urtean agertu zan leenengoz idatziz. Kale orreri emon jakozan beste izen batzuk be badira: **Bentako bidea** (1895), **Bidezabaleko bidea** (1896), **Bentaldeko bidea** (1936).

AREAGAKO itsas ibiltokia: Bakioko areatzearen izena, **Areaga**, 1859. urtean agertu zan leenengoz idatzita. Itsas ibiltokia oraintsukoa da, ostera. Eta egon, areatzearen ganean dago eginda. Ortik, bada, **Areaga-ko itsas ibiltokia** izena. Izen barria, atan be.

ARESTIKO bidea: Aresti etxea 1949. urtean egin zan **Uriarte** (1641) aldeetxekoa zan **Buztindi** (1910) izeneko soloan. Kale barri orreri, bada, **Arestiko bidea** izena imini deusogu, bide orrek arantza egiten daualako. **Urkitzaurrealde** (1876) izeneko auzoan dogu.

ARETXETAKO zubia: Ibarreta etxe-moltso ingurua eta **Aretxeta** (1605) aldeetxearen ingurua batuko dituan zubi barriari emon deusogun izena dogu au berau. Ez dauka, baina, zubi barri onek **Tabernaldeko zubia** (1933) (edota errian **Aretxetako zubia** izenagaz be ezaguna) izenekoagaz zerikusirik, izena bera izan ezik.

AREZABALEKO plazea: 1915. urte ingurukoa izan leiteken argazki baten agertu da leenengoz izen au. **Arezabal** izeneko alderdi ori areatza zati bat baino ez da izan. **Urzabal** (1893) izeneko padurearen eta erreka nagusiak itsasoagaz alkar jotzen dauan lekuaren artean dago, erreka nagusiaren eskoi aldean egon be. **Arezabal** orren ostean **Urzabalondo** (1902) izeneko lur sailea egoan. **Urzabalondo** orrretan ziiitza egoan, eta badagoz, gaur egun be, esaterako, **Ibaigane** (1924), **Itxasbide**, **Itxasalde**, **Marloi**, **Ziyalde** izeneko etxeak.

AREZABALEko zubia: Arezabal (1915) izeneko areatza zatia, erreka nagusiaren eskoiko alderdian, eta ezkerrekoan **Zarrakoa** (1923) izeneko inguru biak alkartuten ditu zubi onek. Errekan beera, azkenengo zubia dogu.

ASKADAKo bidea: Ondarreko atxetik (1982) eta Kantarapeko atxeteginoko atx moltsoari **Askada** (1876) esaten jako. **Askadako bidea** dalakoa leengo **Karabineroen txabolara** (1876) joateko bertan egoan bidezidorraren ganean egingo da.

ATXAGAKo bidea: Atxaga (1910) izeneko lur sailea andia eta zabala izan da. Lur saila ori **Minitua** (1576), **Minituatzea**, **Artetxe** (1682), **Gorrondona** (1641) eta **Beitia** (1641) etxeetakoa izan da. **Atxagako bidea** izena erabili dogu kale ori inguru aretan be badagoyalako.

Barrenkale: Kale luzea izan eta kale orren ibilbidean leku-izen asko egonda, euskal kale izendegi istorikoa erabiltea ebatzi dogu. Bakioko urigunean **Basigoko bide nagusiaren** (1895) ezkerreko alderdian lotuko da kale ori, **Elexalde** (1870) eta **Urkitzaurrealde** auzoetan. Ortik bada, daukan izena.

BASIGOKo bide nagusia: Errian aro modernoan egin dan leenengo bide nagusia izan da (1890). Izatez, errian **Bide nagusia** esaten jako. Egin zanean, **Bakioko Basigo** (1479) izeneko eleizatean egin zan, **Zubiaurrealde** eta **San Pelaio** auzoak orduan Bermeokoak ziran-eta. Orregaitik, bide nagusiaren zati ori **Basigokoa** izendauko dogu.

BASTEGIONDO bidea: **Bastegiondo** (1910) soloa da, **Luzarraga** (1500) edota **Luzarragagoikoa** (1634) izeneko aldeetxekoa. Kale barri onek bada or inguruan dagoan **Bastegiondo** solo orren izena eukiko dau.

BENTABARRI kalea: **Bentabarri** (1895) edo **Altamira** (1895) izeneko etxea egin zan **Benta** edo **Bentabarri** (1929) izeneko etxetik paraje. Kale orreri **Bentabarri** izena emon jako, aren gomutagarri.

BENTAKO PLAZEA: **Bentako plazea** (1931) dalako izenagaz ezagutu dogu gaur artean plaza ori, agoz zein idatziz. Bertan egon zan leenengo **Benta** eritxon etxea eta, geroago, **Erdikobenta** (1919) izenekoa. Inguru guzti oneri **Bentalde** (1900) esaten izan jako.

BENTAKOLANDA kalea: **Bentakolanda** (1898) eta **Bentaldekolanda** (1898) soloak izan ziran Bentabarri izeneko etxekoak. **Bentakolanda** izeneko soloan dagoz eginda, gaur egun, Itxasbegi-bat eta Itxasertzeberri izeneko etxe barriak. Orregaitik ipini jako kale orreri izen au, **Bentakolanda** solotik paraje-paraje dagoalako.

BENTAZAR kalea: **Benta** edo **Bentazar** izeneko etxea **San Pelaio** auzoko saltokia eta tabernea izan zan. Leenengo, **Bentabarri** edo **Altamira** eta, gero, **Erdikobenta** izeneko etxeak eginkeran, beti **Benta** izenagaz ezaguna izan dan etxeari **Bentazar** esaten asi jakon. Toponimo orreri eusteko kale oneri imini deutsogu **Bentazar** izena.

BIDEGOITIA kalea: **Bidegoitia** (1902) izeneko etxea egon zan **Arezabal** ondoan. **Etxegorri** (1892) eta **Pilipalace** (1946) izenak be emoten izan jakoz etxe orreri. 1974. urtean eratsi zan. Gaur egun, Itxasbide izeneko etxea dago or. Ortik bada kalearen izena.

BIDEZABAL kalea: **Bidezabal** (1829) aldeetxera joateko **Bidezabaleko bidea** izenekoa egon zan an inguruan. Kale onek bide aregaz zerikusi andirik euki ez arren be, izenari eutsi gura izan deutsogu. Etxe areri deutsola dagoan **Txoberrena** (1895) izeneko aldeetxea, ostera, geroagokoa da.

(jarraitzeko)
INIAKI PRIETO

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 20 €. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

EUSKALERRIA ZELAKO JOKUAN SARTUTA DAGON (I)

1.876`rarte Euskalerrria bere legediaren eragilletasunean jabetasun osoa euki eban, eta alan erabakiten zan.

Zergaitik ebagi euskun jabetasun ori ?.

Erregetzaren jaurkintza, berak sortu eban erriak bitartean-jarritakoa edo epaiketarako artekariaren lanezko izatasunean (arbitraje) ipinitakoa da; gaiztotu edo okertu zanean norkerizko jokoa alpertu ziralako erdikari-menperatzaillen alegiñakaitik zirikatuta, menperatzaillan zaleak beste aukera baten billa aldatu ziran.

Aukerazko era barri ori, erregetzaren jaurkintza ospe-gabetuko maldaberan asi zanetik artu eben, eta 1.789`an Frantzia`an egin zan iraultzaren ondoriotik etorri zan. Erdira-zale eskumatar menperatzaillan gudalostearen laguntzagaz jabetu ziralako, ekonomiaren banakuntza, euren sasi-asmotan iraun dagian.

Orregaitik gaur eta andik ona espataren indarragaz daukaguzan berezkotasunaren aurkako Laterriak ezarrira daukaguz.

Nik ez euke esango Zezar erromatarrengandik asmatutako Mundu onen batzangotasuna, eta Kristautasuna sortu ta gero, Konstantino`k 325`ean Kristautasunaren gain, katolikotasunezko alderdia asmatuta, gizarteko jaurkintzlegea eta bear dauan oituraren gogoko-ekandua ondo ordezkatuta joan daiten, Mundu onen gizarte guztia kirian-kirian edo urrenez-urren antolamenduzko erabide on-baten oiñarritu daiten, txarto egon zanik.

Baiña estukuntzazko edo premiaren lasterkazko bide-jarraiketean oiñarritu ziran, Mundu onen bizitza egun birako bakarrik izan balitz bezala.

Eta egitura orrek, gero ta geiago premiazko indarra bear dauan lez, or asi ziran, bata gudalozteagaz eta bestea ziñeskintzaren arauakaz jota-ke beartzen.

Iñork ez dauka eskubiderik, JAINKOA`k Bere legearen bitartez emon dauskun agindua, ekintzazko bizi onetan gaia zeatzasunean ordezkatzeko, premian edo beartasunaren bidean jezartzeko.

a) Danak arduradun jaioten garalako.

b) Azkuntzaren Ikas-bideko ulertza, danoengaitik onartua izan bear-dalako.

d) Danok eta bakotzak daukaguzan bereiztasunak (characteristikas) gardaiñatu, buztartu edo ordezko antolamendu on baten egokitu daitezkan.

Or! dagoz Mundu onetako gizartearen eskubidezko zeregiñak.

Eta beartasunezko ziñeskintzan artu ziran beste bide orreik, JAINKOA`k bakotzari emondako giza-barneko (conciencia) zentzuaren bidez, erri-gizartearen ordezko ardurak borondate onean bete daitezkanen aurka, bereiztasunaren arrazoizko eskubideak sendotzen dira. Orregaitik gagoz eten-bako gero ta borroka lazgarritasunetan sartuta.

Gaur, beartasunezko ziñeskintzetan dabizenak, indar guztiak euren alde batu gure dabez. Nai-ta gaurko Mundu

onetan gizaren on-bizitzarako egin bear diran antolamenduzko aldaketak gizartearen eskubideetan oiñarrituta egin bear dirala esan, Mundu onen antolamenduzko batzangotasuna aginpe baten lortzeko, guzurra esaten dauskue. Azkuntza, espatakaz ipinitako Laterri menperatzaillan onein bitartez egin gure dabelako. Eta gaiñera, katolikotasunaren alderdikierizko asmo ori moral-arauz indartzeko, aukeratu daben Aita-Santua, ziñeskintzaren aldekoa izanez gain, gordetzaille zutsua da.

Orregaitik, ez da egia esaten dabena: “Gizartearen eskubideetan oiñarrituta egin bear dan aldaketa izan bear dala”. Leenengo: Dagozan sasi-jainko lainu ortatik, ez dabezelako gura oiñak gai onetan ezarri. Eta bigarren: JAINKOA`k gizarte guztiari emonda daukaguzan giza-barne au (conciencia), Erri-gizaren borondatea dana, betilez kontuan artugabe egin-gura dabelako.

Non JAINKOA?; Non DEMOKRAZIA?; Non GIZAREN-ESKUBIDEAK?

EUSKALERRIA:

Euskalerrria, bere bizi guztian borroka orreitan sartuta dago, eta bera da Europa onetan izar audienetariko bat: “Giza-Barruko Nortasuna; Gizaren-Eskubideak; Egizkoak dirala Bakoitzak daukaguzan Bereiztasunak eta Bere Ondorioz emoten dauskuzan Izatasunak; Bai, Mundu onetako gizartearen urreratzeagaitik, ordezkotza danon artean ondoen banatu daiten, gaiak daukazan ankerkeritik babesteko eta abar”, aipatu dodan gauza guztien alde alegiñ aundiak egiten dabelako. JAINKOA`k emonda GIZABARRU orren ASKA-TASUNA dalako. Eta beren ondorioa dalako asken baten, gure bizitzazko ordezkartizan “ASKATA-SUNEZKO EGARRIA”.

Badakigu orduan, Mundu onetan berezkotasunaren gauzatik kanpo, dana guzurra dala: Nai belarki-saldoan, giza-arloan, nai meatzeko arloan. Gauza guztien nortasunezko izatea bereiztasunezkoa dalako, eta gauza guzti orreik naastu ezker ez-dakigu zelako maillararte agertuko jakuzan orren aurk-ekintzazko ondorio latzak. Orregaitik esaten da: “DANAK BATERA BAI, BAIÑA NAASTU GABE”.

Eta or katolikotasunezko alderdiaren pekatua, ziñeskintzaren bidean joatea gaitik, ez dauzalako onartzen, aztura-bideko ikerketan lortzen diran jakintzak.

Badakigu ba gaurko EUSKALDUNAK, EUSKALERRIAREN NORTASUNEZKO ASKATASUNA lortu gura ba-dogu, GURE izatasuna ELBURU edo IKUR-LEZ ipini bear dogula, arrokerizko norkeri eta alderdikierietan ibili barik, EUSKALDUN GUZTIEN arazo audiena ASKATASUNAREN-EZA DALAKO.

ATUTXA`tar PAUL
ZORNOTZAN 2.005`ean JORRAILLA`ren 20`an

ABIZENAK

Aretzederra: Gamiz'en dago etxe bat izen au daroana. Itzak esangurea argi dauka: Aitz aundia dagon lekua. Bizkaian zabaldu da, baiña ez larregi. Santiago'n 1684.n urtean.

Aretxeta: Fruniz'en arizti aundi bat: Diego Aretxeta: Diatxak. Bakion be etxea. Aretxak dagozen lekua da.

Areilza: Bermeo'n XIV gizaldian. Arairea izanik, atzizki bi-il-etatza. Baiña ariztia be izan leiteke.

Areitio: Bizkaikoa da eta ara-irelekua izan leiteke eta bedar-lekua, edo aritz-lekua. -ti- ugaritasuna da eta -o tokia. Zaragoza'n 1826.

Areizaga: Gipuzkoa asko agertzen da. Markiña'n be bai. Aritza dagoan lekua da. Elgoibar'n 1658n. urtean.

Areso (Arezo): Gipuzkoan geien. Ara-ireia edo bedarlekua litzake eta -so aundi atizkia. Iratxe aundia dagon tokoa. Beste batzuk aritza'tik dakarre eta beste batzuk area'tik. Legazpian 1522.

Arespakotxaga: Elorrio'n 1468. Jauregi bat dago bertan.

Aresti: Elorrio'ko Zenita auzoan. Aritz asko dagon lekua da. Bilbao'n 1660 urtean.

Argatxa: Izan leiteke arga-bedar lekua ta -tza ugaritasuna edo Arrigatxa, igoteko gatxa da aitzia. Bilbao'n agertzen da geien.

Argandoña: Araba'n Estibaliz-ondoan erria. Arga- bedar-lekua da eta -do- ta -ña atzizkiak. Gasteiz'en agertzen da 1520'an.

Argoitia: Ondarroa'n. Ara- irea edo arri-aitza. -Goitia goiko aldea. Bilbao'n 1721n. urtean.

Arginoniz: Berriz'en. Arga- bedarlekua da eta -in- eta -onatoki atzizkia, -iz abizena dala adierazteko. Arrasate'n 1596.

Aritxuluaga: Gipuzkoa'n. Toki sakonean, zuloan, dagon ariztia litzake. Ondoko edo barruko etxea.

Arieta: Elorrio'ko miota auzoan iru etxe dagoz. Ireak edo bedarra dagozen lekua. Elorrio'n 1575.

Ariño: Bizkaia'n asko. Antxiñatik, gaiñera: Teruel'en 1411n. urtean agertzen da. Ireak dagozen lekua da.

Aristi: Anzuola'n etxea. Aritz-moltzoa dagon lekua da. Elgeta'n 1650n. urtean.

Arnaga: Mungia'n auzoa. Aranak dagozen lekua dala dirudi. 1654n. urtean Balladolid'en. Okaranak?

Arnaiz: Enkarterrian. Aranak dagozen lekua dala dirudi. 1654n. urtean Balladolid'en.

Arozena: Arotzaren etxea esan gura dau. Naparroa'n eta Gipuzkoa'n zabaldu da. Agertu Azkoitia'n 1669n. urtean.

Artatxo: Artea dagon lekua. Bizkai'tik Aragoira joan ziran. Balladolid'en sarritan agertzen da. Santiago 1704n. urtean.

Artiñano: Laudio'n eta inguruetan. Artea dagon lekua baiño ez dau esan gura. 1637n. urtean Balladolid'en agertzen da.

Arzak: Donostian agiri da 1525n. urtean. Altzak dagozen lekua esan gura dau eta ba-leiteke iparraldetik etorria izatea. Emengo Alzaga'ren antzekoa.

Arzadun: Altza'n iru dagoz. Artza arritza da eta -dun tokia. 1566n. urtean donostiar batek daroa abizen au.

Arzalluz: Errexil-en eta Azpeitia'n dagoz etxeak. Arritza luzea esan gura dau. Azpeitia'ko baten daroa 1570n. urtean.

OLAZAR'tar Martin'ek

ERBESTEKO BIDARIAK ANTXIÑA EMEN JACOB CUELVIS IZENENKO INGLANDERRIAR BAT 1599'AN

Gaur, 2005'ko Jorrallean, oroi dezagun dirala 406 urte emen ibilli zala Jacob CUELVIS ura. Bere ibillaldia kontatzeko idatzi zuan idazkia ez da sekulan argitaratua izan. Eskuz berak idatzi zuan bezala gordetzen da Londres'ko Britainiar-Museoan. Idazle ori nor izan zan ez dakigu, baiñan Españi osoa gai duan **“Thesoro Corografico de las Españas”** izenduan bere idazki orrek bazuan noski garrantzia. 1725'an, Alemani'tik SCOTT izeneko enbajadari batek ekarri-ta, Olanda'n egon bait zan luzaro inprentari baten etxean, inprentari onek Oxford'eko Konteari bidalia izan zan arte.

Idazki ori ¿Laterri-arteko kukulari edo “espia” baten lana ote zan? ¿Izango al zuan Inlanderriak kukulari erneagorik! idazki ori beintzat gezurrez beterik bait dago.

Euskaldunok, zori txarrez, gure edestiari buruzko dokumentuak oso gutxi ditugu. Gure asabek oso idazle motzak izan bait ziran.

Ez dakit nor izan zan aurrena esan zuana, baiña aspaldi esana da euskalduna **idazle ez baiña entzule dala. Pozik egongo dala gau osoa bertsoari entzuten, baiña izugarriko nekea gertatuko zaiola, bi itz idazteko, luma artu bearra.** Ori-dala-ta, garrantzi aundia dute, guretzat, idazki-zatirik txikienek ere. Baiñan ez diegu ain errez, eta besterik gabe, gure uste on osorik eman bear. Geienak euskerarik ez zekiten atzeritarren lana bait dira.

Orregaitik oso gaizki egin du Arantzazu-osteko Euskaltzaindi errukigarri onek gure toponimiko izenak ain aluki aldatzera-koan.

Adibidez, aztertzeraz goazten idazki ontan bertan aurki dazazkegu gezurrezko izen ugari, damaizkigun toponimoen artean. Ikus:

– SEGURA. “Villa pequeña antiguamente llamada GUADAMAR”.

Orra or aurreneko gezurra, SEGURA'ren izena ez bait da beñere GUADAMAR izan. Itz ori arabiarra da, eta arabiarrek ez ziran beñere SEGURA'n izan.

Baiña badamaizkigu dokumentu onek SEGURA aipatzean bi albiste arras jakingarriak:

1^a: Aurrenekoa, idazleak IRUN'en egin zuan osasun-azterketa (*el testimonio de la salud*) bigarren aldiz egin bear izan zuala emen, Segura'n (*han refrendado aquí*)

2^a: Bigarrena, SEGURA'n erri gutzia joaten zala prozesioetara.

Gaur bertan ere, GIPUZKOA guzian oraindik ospetsuak dira astesantuz SEGURA'ko ibildeunak. Joan ez eze, erriko jende guztiak parte artzen du beraietan, jeta nolako debozioz gainera!

– MONTE DE SAN ADRIAN. Beste bi gezur mendate au aipatzerakoan:

– Bata, Auñamendiko mendirik garaienetako bat bera dala, eta

baita ESPAÑI guztiko mendietan ere (*de las más altas montañas de los Pyreneos y aun de toda España*).

– Bestea, andik, bi itxasoak (*utrumque mare*) ikusten dirala. Ikusi zituala omen dio beintzat, geografiz arras yayo (*“vivo peritissimo”*) omen zan Fernando COLONÉ'k: *Utrumque mare: oceanum et Mediterraneum*.

¿ZALDUENDO'tik gora izarditan igo-ta gainean, ARABA'ko beltzetik geiegi edan zualako, alkoolaren laño-tartean ikusi ote andik COLONÉ jaun jakintsu orrek Lurrart'Itxaso! San Adrian'dik 5'enbat kilometro Sortaldera, jaiotzen dan ZADORRA'k bide luzea igaro bear bait du oraindik, BITORI-ta, LOGROÑO-ta, KALAGURRI (Calahorra)-ta, MUSKARI (Tudela)-ta, SALDUBA (Zaragoza)-ta igaroz-gero, TORTOSA'ra iristeko.

Eta iru gezur geiago lerro bat berean: (1^a), *“Mendi ori ADRIAN DONEA'ganako jendeen maitasunak egin zuan ospetsu”*; (2^a), *“antxe bizitu zan ba San Adrian”*, (eta 3^a) *“anakoreta edo bakar-bizi-zalea izan zalako”*.

Dana gezurra: San Adrian ez zan bakartia izan, eta ez zan, ezta-re, an bizitu, ta erriak ez zion goi artako baselizatxoari eraspen bereizirik izan. An baseliza bat zegoalako ez baiña ARABA'tik GIPUZKOA'ra igarotzeko, ARLABAN'go mendatea XVIII mendean dotoretu zan arte, egokiena SAN ANDRIAN'go au gertatzen zalako, izan zan EUROPA guztian ezagututa.

AGURAIN'era irtitxiz gero oso polita iruditu zitzaion inguru ura dana gure ibiltariari. Ori, beste bidari guztiei ere gertatzen zitzaien: *“Una valle (sic) muy deleytosa”* omen da guzti ura: erri txikiz bete-betea.

Gure GIPUZKOA'ko bideetaz ere aski ongi mintzatzen da gaur aztertu dugun bidazle au. *“Hasta aquí (Agurain arte) el camino de los montes Pyreneos está casi todo acostado con piedras”*.

Oroi dezagun, irakurle, antziñatar aientzat GIPUZKOA ta BIZKAIA Auñamendiaren barruan zeudela, mendikate ori GALIZI'ko FINISTERRE'raiño luzatzen bait zuten.

Beraz Auñamendi'ren barru-barruko bide bat ibilli zuan bidazle ark GIPUZKOA-zear. Bide ori galtzara omen zan (*“acostado con piedras”*), (*“y siendo muy deleytoso”*). *“Los muleros (mandazaiñak) que llevan principalmente hierro pueden pasar en el invierno la nieve”*, eta bide ori, geienbat, mendi-malden azpitik omen zetorren: (*en baxo de la falda de las montañas*).

Guren mandazaiek **“PRINCIPALMENTE”** zeramaten ez zan ERRIOXA'ko ardoa. Ezta GAZTELEERRI'tiko artillea ere. Gure meatzetako burnia baizik, aurretik Lege Zarra eze-reztuz-gero, ESPAÑI'ko legedi liberalaren araura, –beren diru-gosea asetzearren gure kapitalistek EUSKALERRIKO meatzak zearo agortu zituzten arte–, burnia bait zan gure aberastasunik audiena.

Latiegi ta Eraso tar Bixente
945.23.31.40
BITORI

ANDRA MARI DANTZA-TALDEA

GALDAKAO'N KATOLIKU- EKINTZA'KO DANTZAK ETA ANDRA MARI.

Iñaki Ibarra eta onen lenengo mezea

Jaun onek Gasteiz'en 1954-55'an ikasitako euskal dantzai buruz 1957'ko iraillaren 22'an zeozer irakasten asi ondoren, naizta oso denpora gitxian, espatadantzariak ortxe dabe asierea, gero Txinbera agertuarate. Gaztedi'ko dantzari areik bidaiak eta botilla bat ardaud ordaintzeko, lagun-ardean edateko usteaz, dirua eskatu eben eta Kurtze iturri-ondoan eta telefonika-ondoan egoan bodegillan botilla bat ardaud an ego-ten gintzazenen artean edaten gendun, geienetan Ibarra'k bere aitari ardaud ordaintzeko dirua eskatuta, eta autobusa etorri-orduau, Txinbera etxera joaten zan.

Ibarra'k bere lenengo mezea Kurtze'ko Andra Mari eleizan, 1958n. urteko uztaillaren 20'an emon eban, arkupetik igarondoren. Mezea amaitu zanean, eleiz-torre-aurrean Katoliku-Ekintzako, neskak zinta-dantza egin eben eta jota ta arin-arin dantzatuta gero, angoa amaitu zan.

Iñaki, gero ezkondu egin zan eta 1981n. urtean Zine Regio'n "El Caserio" obran Artetxe'k dantzan egin ebal, oraindiño iru aste ez dira Ibarra gogoratu eustala, bera ta andrea, senar-emazteak, bertan Zine Regio'n obrea ikusten egon eta Andra Mari'koak dantzan egozala, Obrea geratu eta berba oneik erderaz esan ebezala:"En honor a Iñaki Ibarra y su señora. A Ibarra, uno de los cofundadores del Grupo Andra Mari."

Argazki onetan eta belauniko dagoana Iñaki Ibarra dogu .Abadetzatza itzi eta gero 1970n. urtean Guayakil-Quito parajeau Ekuador'en agertzen jaku gure Iñaki bigarren argazkian



1958'KO ABENDUAREN 8'AN GALDAKAO'KO PLAZAN

Argazki onetan eta gure ezker-alde-
tik izendatzen asi ezker, neskak onei-
xek doguz: Zutunik eta kale jantziagaz
dagozenak Mari Karmen Jauregi,
Mertxe Beitia, Inmakulada Dal-
mau, Rosalia Moreno eta Mari Karmen
Zabaleta; eta makurtuta ilandera jan-
tziz, gure ezker-alde-
tik asita, Begoña
Uriarte, Mari Karmen Iturregi, Abeli
Gutierrez, eta Kontxi Gaintza. Andra
Mari sortzaillea. Argazki au 1958n.
urteko abenduaren 8'an.



Sorkunde Garbiaren egunean erri-
ko plazan, Legarreta'ren taberna-
aurrean egin eben,. Jantziak Miseri-
kordiatik ekarri ei ziran. Zutunik
dagozan neskak 1956n. urtean dan-
tzan egin eben eta danak diño
1956n. urtean ez Txinbera ez iño
dantzan irakasten Katoliku-Ekin-
tza'ra ez zala etorri, lendik be bi
dantza ba-ekiezan Elena Amaia
Orrantia euren arduradun izan
zanean ikasita eta urte aretan orrelan
dantzatu eben, Jose Mariano Barre-
netxea txistulari zala.



DANTZAK



Argazki onetako neska biok Kur-zeko Plazan, Legarreta ren taberna aurrean agertzen dira eta gure ezkerretik eskumara Ana Mari Irigoien eta Rosa Mari Bilbao dira, 1958n. urtean abendu 8an Sorkunde Garbiaren egunean dantzatu ondoren, argazkia egin zan nesken jantziak kanpotik ekarriak zirala, eta urrengo urtean eurak egiñeko jantziakaz, jantzi barriakaz dantzatu eben guztiak,

1958N. URTEKO ABENDUAREN 8AN GALDAKAOKO PLAZAN

Katoliku Ekintzatik Jose Luis Agirre, Jose Luis Egiarte eta Maite Urrutikoetxea, 1914ko dantza taldearen bandereagaz dantzan egiteko, Udaletxera, Alkate Jaunarengana baimena lortzeko joan zira. Eta jaun arek iru koloretako, berde zuri ta gorri, banderearen ligen edo inguru guztian eukan kordela kentzeko agindu eban eta Egoarte ren etxean kendu ondoren, Sorkunde Garbiaren egunean dantzan egin zan.

Argazkian aurreren ikusten diran irurak, gure ezkerretik asita, Bizente Arroyo, Jose Luis Agirre bandereagaz eta Nazario Barrenetxea dira.

Neska ta mutil dantza taldea 1958=12=8 an, Sorkunde Garbiaren egunean. 302n. ZER aldizkarian, 12n orrialdean agertzen dira guztien izenak, naita Jose Luis Egiarte txistulari zala argazkian ez agertu, kalez jantzi ta dagoan orduko gaztea txistulari barria Juan Jose Altuna da. Eta onen



eskoi aldean dagozan neska biak Ana Mari Atutxa eta Maite Urrutikoetxea dira. 1958ko aguztuko jaietan Zeauri errian jota dantzaren txapelketak izan ziran eta Txinbera ta Maitek lenengo saria irabazi eben, baita Jesus Uriartek Ana Marigaz bigarren saria lortu be. Baiña argazkian Mari-bel Intxaurren barik Maribel Kas-

tilla da.

Neska taldea be Galdakaoko plazan 1958.12.8an Sorkunde garbiaren egunean Guzti onein izenak be esan dodaz 302 n. ZER aldizkarian

JOSE MARIANO
BARRENETXEA



DESKARTES

Sartu gaitезan buru-belarri filosofi barri edo modernora.

Bide bi aurkituko doguz filosofi barri onetan, bata buru argiarena edo errazoi-bidea, emen Deskartes, Melebrache, Spinoza ta Leibniz, eta bestea zentzunen bidea emen Bakon, Hobbes, Locke, Berkeleyi eta Hume. Ondoren Argituak edo ilustraziñoa dator eta iru jokoabide onek batzen dauz azkenean Kant´ek.

• • •

Descartes La Haya´n jaio zan 1596n. urtean, Josulagunetan ikasi eban eta 1616n. urtean eskubide-arloan dotoretza lortu eban Poitiers´en. Gero gudaketara sartu zan urteetarako. 1619n. urtean azillaren 10n. egunean iru amets egin ebazan eta orreitan ikusi eban zientzi guztiak matematikaren bidez oiñarrituko ebazala.

1628n. urtean, ogeta amabi urtekoa zala, bakartadean bizi izaten asi zan Olanda´n eta orrelan bizi izan zan il baiño urtebete lenagora arte. 1 Kristiña erregiña ospetsuagaz alkar-izketak egiten ebazan gai onei buruz. 650n. urtean il zan 54 urtekoa zala.

Berrogeta bat urtekoa izan zanean liburu bat argitaratu eban, meteoroak, dioptria eta jeometria gai ebazala, eta liburu onen aurrean agertzen dau Ikasbidearen itzaldia edo “Discurso del método” deritxona, filosofian izan dan libururik iraultzailleena ta ospetsuena, filosofi barri edo modernoaren asiera izango dana.

• • •

IKASBIDEKO ZALANTZA

Ezagupenaren oiñarrian Descartes´ek ikasbideko zalantza edo “duda metódika” ipinten dau. Zer dan ori? Ezer be ez da egizat artu bear arik eta “argi eta bereiziki” egia dala jakin arte.

Baiña zer ikusten dogu “argi eta bereiziki”? Lenengo, “pentsatzen nagoala eta orregaitik ba-nazela” (Cogito, ergo sum). Ni pensatzen nago eta ezin ori izan, neu izan ez ba´naz. Bardin esan leike nai izateari buruz, “volo ergo sum”, nai dot, orduan ba-naz.

Oiñarri ona benetan! Baiña zelan urten ortik kanpora? Nire ustez emen dago Descartes´en makaltasuna eta makaltasun onek ondoren txarrak ekarri ebazan urrengo filosofoengan. Argitasun ori ez daukana, ukatu egingo dabelako.

• • •

Berak asmakizun ori lenengo matematikara daroa eta or dago zientzi edo jakingai guztien oiñarria eta orrek argitzen dauz eskolastikak daukazan zalantza guztiak eta orrelan alboratu nai izan eban Montaigne´ren zalantzategia edo eszeptizismoa. Berarentzat filosofia zugatz baten antzekoa da eta zugatz onen sustraiak metafisika dira, enborra fisika, osagilletza, mekanika eta jokabide-arloa, gero datoz frutuak, praktitarako edo zoriotsu izateko bideak.

Ain garrantzitsu dan argitasunaren eta ziurtasunarren bide oneri jarraitzeko

Iru arau damoskuz Descartes´ek: 1) Ez ezer egizat artu argia eta ziurra ez ba´da. 2) Burubide nastatuak zatika artu arik eta zatirik txikiena argia ta ziurra izan arte. 3) Idea xumeetatik asita aurrera ziurtasunaz eroan gaiak. 4) Ezer ez dala aztertu barik itzi argi ikusteko, zenbatu burubide argi eta ziur orreik.

Descartes´en filosofi osoa ortxe dago, azken baten norberaren ziurtasunean, burubide argi eta bereizietan.

Ikasbideko zalantza ori ez da zalantzan jarraitzeko, egia billatzeko oiñarria baiño, “duda metódica” da es “escéptica”, gauza guztietara sartzen da, nai dabelako artzen dau filosofoak. San Agustin´ek be ba´eukan olako edo antzeko azterbide bat. Ona emen bere berbak: “Egirik ez ba-dago, egia da egirik ez dagoala, orduan egia ba-dago”. Orra or, argitasunaren ziurtasuna.

• • •

Baiña zelan urten orain beste gauza batzuk ezagutzero? Emen dago, nire ustez, makaltasuna.

“Cogito” edo “pentsatzen nago” orrek bigarren burutasun argi batera daroa filosofoa, Jainkoagana. Jainkoa da egi orrek garantia, ziurtasuna, guztiak Jaikoa dabe oiñarri. Arnauld filosofoa izan zan makaltasun ori agertu ebana eta ziurtasuna Jaikoaren menpean ipinten dauala diñotso.

Zergaitik emon ete eban Descartes´ek pausu laban au? Bear ba´da fede aundiko gizona zalako, txikitatik bide orretan ezia, eta ez eban or oiñarri txar ipinterik nai.

Ba-dakaz berak Jainkoa ba-dagoala baieztatzen zioak: Bikaintasun osoa berrezkoa da eta Jainkoagan baiño ez dago, guk izate artua daukagu, baten batek izan bear dau emoilie, San Anselmo´ren argumentua ondo jatorko Descartes´eri ezagupen argiaren bidetik Jainkoa baieztatzen daualako, arlo barri batzutara zabaldua.

Zelakoa da Descartes´en Jainkoa? Gure buruan bertan jaiotzatik agertzen da idea bat da, Jainkoa bere buruaren egillea da (j) Jatorri egillea edo “causa” izaki guztientzat dalako, baiña konturatu zan egilleak lenagokoa izan bear

FILOSOFIA

dauala egiñak baiño eta ori argitzen dau “potencia/acto” burubideakaz

Descartes´ek onartzen dau burubide batzuk betikoak dirala eta ori San Augustin`en irakatsietan oiñarritzen da,Platon´en “eredu”en antzera.Betiko idea orreik munduari ziurtasuna emoten dautsoe.

Mundugintzak gaur be jarraitu egiten dau, guk zaintzaillea dala Jainkoa esaten dogun antzera.

Ikusten da ba.Descartes oso Jainko-zalea dala,benetako fededuna, baiña oiñarri batzuk kendu dauz bere filosofiak eta ortik etorriko dira urrengo filosofoetan aurkituko doguzan bide okerrak.

• • •

Descartes´ek ezarri dauz ziurtasunean norbera eta Jainkoa, baiña zelan igaro azterbide edo metodo ori munduko beste gauza guztietara?

Munduko gauzen burubide argi eta ziurruk ezin dogu euki,baiña bai bat,zabaltasuna (extensión). Gauzen izatea zabaltasuna eukitea da eta au adimenean dagon bertan agertutako burubidea da (idea innata).Ona emen Platon´en bidea. Ortik dator guk zentipenak eukitea,sustantzia edo zertasuna or dago,Jainkoa da zertasuna daukan bakarra,beste zertasanak Are menpean dagoz.Jainkoak ezin geinkez iruzurtu,egi-zalea da-ta, orregaitik gure sentipenak egia dira. Makalatasun aundia!

• • •

Goputza ta arimea zer edo zertasun bi dira,zer pentsatzaillea eta zer zabala. Bitasun ori izango da urrengo filosofoen buru-austea eta Spinoza´k zertasun bakarra dirala esango dau, Malebrantxe´k okasiona-lismoa ipiñiko dau bide eta Leibniz´ek “armonia prestablecida”. Orra zelako okerrak dakazan bitasun orrek.

Bitasun orrek daroa Descartes beste eritxi baragarri batera,arimea buruaren bazter baten dagoala,”glandula pineal” esaten dautson bazter baten.Umekeri bat dirudi.

• • •

Eta nondik datoz fisika´ko legeak? Argiak eta ziurruk dira? Lege orrein oiñarria Jainkoaren mundugintza bera da eta egillea billatu bear da.

Gaia edo materia ez da zabaltasuna baiño eta mundua kiziz edo atomoz osotuta dago eta guztien artean mundua egiten dabe tramankulu edo makiña baten antzera, atomoak arin dabilzanean isurkia,likidoa dira, astiro dabizenean gauza sendoak sortzen dabez eta ariñago dabilzanean lurrun eta gasak.”Mekanizismo” deritxo orreri.

• • •

Eta jokabiderako arauak edo etika, zelan ziurtatzen da? Aldirako moral bat ezarri eban Descartes´ek,azterketa sakona egin arte.Erriko oiturak eta legeak, “umetatik artu neban erlejiñoa”.Arau orreitan sendo jarraitu bear da,alegiña egin bear dot neure burua ukatzen

Betirako etika edo morala be agertu eban gero,baiña ondo azaldu orduko il egin zan.

ZABALDIA

Mungia eder, zuri begira
daukat gogo bizirik,
ain zara bikain zure itxuraz
alderdi guztietatik,
nora nai adi giza adiña
izten dozu alaiturik,
zure eskarrez eta ederrez
gizon oro zoraturik.

Zabal zabala dozu biotza
itxasoaren antzera,
egal batetik eta bestera
dana urrezko erara,
notiñak legez baita zelaiak
danak pozezko gizara,
au da zoria asmetan dana
erri ontara begira.

Lorez jantzita dakust zelaia
goitik bera apaindurik,
aurrez aur dauka erri maitia
zoramen eztiz urturik,
abeslaria kantari dago

bere baitan gozaturik,
kanpo ederra soiñu ez titan
Mungiari eskeinirik.

Mendiak datoz gora goraka
illunen ondorenian,
erri maitia babestu nairik
maitasun ederrenian,
Jata maitia, Sollube garai
liraintasuna jatorrian,
mosu gozoaz agurtzen dabe
erria egun-sentian.

Aittitte ta amama bigun
biotzez zabal zabalik,
sendi onari begira dagoz
biotz eztia urturik,
aurrera seme, aurrera alaba,
sendira begiraturik,
Mungi eder bat osotu daigun
indar danak alkaturik.

PAULIN

SALMOAK

72N. SALMOA JAUNA KURUTZEAN

1

Sententzia au oiu aundian
irakurri zuenean,
gurutze astuna jarri zien
espaldan zauri gaiñean.
Gurutzea artzeko eskuak
askatu zizkatenean,
sokaz bi buelta lepuan eman
zizken gogortasunean.

2

Judutar aiek etzuen libre
gurutzea ikutzea,
sokatatikan tiratzen zien
aurrera eta atzera.
Bere gorputza auldua zeukan
ta astuna gurutzea,
ametitua zuan eskeintza
ta simonek lagntzea.

3

Eldu siraden kalbariora
zan Urkamendi deitua,
lapur aundiñak eta gaiztonak
iltzeko aukeratua.
Jauna zeguan itxura gabe
miñez lllagatan lertua,
berekin zeukan Jainkotasunak
bizitzeko indartua.

4

Gurutzearen iltze-zuluak
nola egin neurtutzeko,
agindu zien, arro, gurutze
aren gaiñean jartzeko.
Maixu umilla laister jarrian
aueri obeditzeko,
ta luzeago zulatu zuen
geiago supritutzeko.

3

Gizon gaiztoak bigarren aldiz
“Jarri bertan” aginduta,
jarri zan gurutzan gaiñean
Jauna besok zabalduta.
Amari utzi zien gaiztoak
ikusten urreratuta
penatzearen, ta bere Amak
jarri zerbait alaituta.

6

Beste besua etzan iristen
iltze-zulo markatura,
bere nerbiok enkojituta
ta urruti zulo ura.
Kate bereakin lotu zien
tiraka gogor lekura,
beste besua jostean etzan
au gizonaren itxura.

7

Bere bioñak artu zituen
kate onekin lotuta,
bata bestean gaiñean zala
oso gogor tiratuta.
Biak batean josi zizkien
iltze aundi bat artuta,
bere ezurak agertu ziran
zeuzken lekuak lertuta.

8

Gurutzea zutikan jartzeko
gaizto asko juntatuta,
jasoa zuen lantza zorrotza,
beso azpian sartuta.
Judutarrak zeuden blasfematzen
zintzoak errukituta,
ta kanpotarrak ikusten zeuden
gertatua arrituta.

73N. SALMOA: JAUNA KURUTZEAN

I

Ama Birjiñak eskatu zion
laguntza Jaiko Aitari,
ta biurtu zan agindutzera
eguzki ta izarrari.
Gelditu zuen sentimentua
iltzen dagoan Jaunari.

2

“Arkaitzak eta arri gogorak
agertu sentimentua,
zuek geldikan egote ori
izan bedi puskatua.
Ildako asko enterratuak
agertu ezkutatua,
belo mistiko Eleizakoa
izan bedi partitua”.

3

Ama Birjiñak agindu dana
laister bete zan benetan,
eguzkia illundu egin zan
eguardin amabietan.
Eta etzuan argirik eman
il zan arte iruretan,
mobimentuak izandu ziran
illargi ta izarretan.

4

Au da Jaunaren Testamentua
egiña gurutzetikan,
zazpi itz esan baiño lenago
jakin Amak bakarrikan:
“Aita nerea, goratzen zaitut
gurutze arbolatikan,
nere gorputza Jainkotasunez
jarri zendun baturikan.

5

Eman dizkidatu zero-lurrak
giltzak nerekin artzeko,
egin niñuzun Redentorea
gizon danak salbatzeko.
Eriotza ta bizitza ere
nere mendean artzeko,
Aita nerea, orregatikan
naukazu alabatzeko.

6

Orain nai det ba Betiko Aita
gure bion izenean,
gauza guztiak izendatzea
nere Amaren mendean.
Kriatura dan bezela jarri
grazirika aundiñean,
nerea dana berea izan
bedi bizitza danean.

7

Deklaratzen det izan dedilla
au etsaien tormentua,
auxe zalako arrotasunez
berentzat aukeratua.
Gogo oneko gizon guztia
daukat Nigana deitua,
neri jarraitzen baldin badie
beteaz lege santua.

8

Nai det gaiñera berekin pioztu
kontu ixillak esanaz,
berekin bizi Eleiza Santan
sakramentuak emanaz.
Ogi ta ardo kontsagratuan
Nerekin bizi izanaz,
agintzen diet betiko poza
Neregana eramanez.

72N. SALMOA
JAUNA KURUTZEAN

I

Ondorenean ezagutzen du
Birjiñak goi-argiak
nola Jaunari eman nai zien
beazuna arduakin.
Judutar aiek oitura zuen
lagundu ardo onakin;
Jesusi eman zien arrabiz
nastua beazunakin.

2

Esaten zien: “Ara Eleiza
apurtu ta osatua.
Bestiak salbatu ditu baiña
ezin du bere burua”.
Besteak ziren: “Au baldin bada
Jainkoan Seme santua,
jetxi dedilla gurutzetikan
izango da sinistua”.

3

lapurrak iltzen zeudenak ere
zioten lenbizitikan;
“Jainko bazera, salbatu zen ta
salbatu gu emendikan”.
Birjiñak otoitz egiña zuan
Jauna adoraturikan
ta biotz asko gelditu ziran
bere alde jarritikan.

4

Salbatzailleak esana zuan
gurutzean zeukatela:
“Aita, barkatu; au egin due
nor naizen ez dakitela”.
Ama Birjiña animan alde
erregutzen zegoela,
damaturikan lapur Dinasek)
itz egin zuan onela.

5

“Ez daukat ik e Jainko bildurrik
blasfematzen jarraitzeko?
ik eta nik merezia digu
gurutzetza iltzeko.
Baiñan onek ez dik ezer egin
onela kastigatzeko.
Eskatzen dizut zure erreinuan
nerekin akordatzeko”.

6

Asi zizaden graziarekin
biotzak ontzen orduan.
Erantzun zion: “Egitan dizut:
gaur zu nerekin zeruan”.
Ondorenean Jaunak ikusi
Ama gurutze onduan:
“Emakumea, au dezu seme;
ta zuk au ama munduan.

7

Jesusek bere azken ordua
iristen ari zalako,
neurrigabeko miñak gugati,
supritu zitualako,
gure animak zerurartzeko
maitasuna zigulako,
Berepena zan kastigatzera
obligatuko zielako.

8

Betea dago Eskrituretan
profetak esan zuena,
Eleiza jartzen diet munduan
mudatu ezin leikena,
dotriña eta sakramentuak,
pekatuen barkamena,
Adanen ondorengo danentzat
zerura bide zuzena”.

ALADALUR'tar JUSTIÑE
(KLARATARRA)
GASTEIZ

“ZER” ALDIZKARIRA ESKUTITZA

Eskutitz onetan dantzari buruz joan dan illeko zenbakian 14n. orrialdean agertu dan artikulua apur bat argitzera noa. “Aspirantes de Accion Catolica” edo Katolilku Ekintzako gaztetxuen arduraduna neu izan nintzan, batzarrak eta ekitaldiak eroateko edo laguntzekoa ta orregaitik zelan izan ziran gauzak azaldu nai dot. Beti umeei laguntza emoten eta kultura edo eziketa arloa lantzen. Norbaitek txarto eginda egoala uste ba dau, oker dabil, arrazoï bategaitik: Orduntxe ezer ez egoan eurentzat eskolea ta falanjea baiño eta mezede bat eleizan egiten geuntsen. Berba egin baiño len, obeto eurai galdetu, ondo jakiteko.

Agur bero bat

AMAIA

“ASPIRANTES DE ACCION KATOLIKA KATOLIKU EKINTZAKO GAZTETXUAK”

Galdakaoko Andra Mari eleizan eta 1950n. urtea zan. Maurizio abadearen laguntzaz, neska gazteen talde bat sortu zan. Ogeiren bat ziran, doktriña ikasten mailla berean ebiltzanak, baiña ikastaroa ia amaitzeko egoanean, abadeak egitarau kultural bat proposatu eutsen astero jarraitzeko. Orrexegaitik, umeei azalduta gero, arduradunak be onartu eutsen, nesken borondatea ikusita. Pozik aukeratu eben batzuk, ez guztiak, baiña ortik amalau bai geratu ziran eta orreikaz eurakaz asi genduzan asteroko batzarrak; ikasi eta ekin elburuagaz.

Gure gaiak gizartea, erlejiñoa, antzerkia eta erriko dantzak ziran. Benetan oso aberatsa zan gure egitaraua. Ori bai, domeketan beti aske egozan euren lagunakaz ibilteko. Batzuk lagunak be ara eroan ebezan.

Urte bi igaro ziran ikasten eta saiatzen, eta, konturatu barik 1952n. urtean jarri giñen eta abenduaren zortzian, Andra Mari, Zeruko Amaren eguna ospatzeko, danon artean, amasei beintzat, euskal dantza pare bat egiteko, ondo prestatuta egozan. Txikitxuenak zazpi urteagaz eta gero ta apurtxu bat aundiagoa, bikote bakoitza..

Alan ba, jantziak alokatu eta buruko zapia ta alparketakaz, politak eta alaiak, meza nagusia amaituta gero,

Mariano Txistulariaren atzetik, akupetatik “arin arin” soñuagaz joiazan lerro bitan.

Ango enparantzara iritsi eta “txankarranko” dantzatu eben, bakoitxak arku bat eskuetan ebela. Ori amaituta, plaza erdian, zugaitz bat ipiñi, txikiak gogor eutsita, eta besteak xingol zuri ta gorriakaz, arbola gurutzez beterik jarri eben., bizkor dantzatzen aren ingurutik gora ta beera zintak eroaten txistuaren soñuagaz.

Amaitzeko, gero, biribilketa bategaz, barrero eleizako arkupeetara, bana-banaka sartu ziran. Orduantxe bai

Maurizio abadea agertu zan guztiak zoriontzeko, bera be pozik egoaneta.

Axe bai egun alaia ta pozgarria Nesken izenak oneixek dira:

Mari Luz Maron, Arantza Juge-ro, Mertxe Beitia, Maria Karmen Jaurerri, Rosalia Moreno, Inmakulada Dalmau, Bego Etxezarraga, Maria Karmen Egizabal, Mari Bego Orozko, Petri Gonzalez, Maria Karmen Iturregi, Kontxi Gaintza, Maite Urrutikoetxea, Mari Karmen Zabala eta beste bi geiago.

AMAIA ORRANTIA



GURE BASOETAN, GUK IKUSI BARIK

Sarritan basorik baso ibiltzen gara eta ez gara konturatzeko gure baso eder orreitan inoiz be ikusiko ez doguzan basa-piztiak bizi dirala. Eta ori, pizti orreik gizakiai bildurra dauskuelako izaten da. Ezkutatu egiten jakuz. Eta pizti orreik, txori abeslariak lez, basoaren arimea dira.

Izadi osoa lo dagoala uste izaten dogunean, orduantxe agertzen dira pizti orreik.

Maiatzeko arratsalde epelean kirikolatza edo sagarroia musturrugaz lurra jotzen dauala, agertzen da lenengoz.

Kirikolatza 0'30 m.'ko gorputza dauka, bere gainean ulearen orde arantza zorrotzak dauka, bere begiak txikiak eta maltzurak dira, musturra zorrotza, eta belarrien artean agoa.

An alboko oianean dago oreinkume jaio-berria be eta bere amak miazkatzen dauan artean, orein aundia dan aita basoan urrin dago. Adarkera ederra goratuta, iretargiaren argi mmotelpen, janari ugariak emongo dautsozan zugasti-aldera doa.

Lukiak negu guztian bere abian lo egin dau. Azeri begi-gorria eta basakatua ez itxartu. Itzi bertan lotan.

Basauntza pizti oso bizia ta alai da eta kimuak jaten dabil ekin eta ekin.

Erbi gorizkea be baso-ertzean dago, bere logelatik urten eta aurrera begira dago eta dana bakean dagoanean bere aldameneko kimuak jaten asten da.

Illuntzea datorrenean, basotik gerizea dator, bitarteka iretargiaren izpiak agertzen dirala. Or agertzen da burua ezkerrean ta eskumara darabilen basurdea. Basurde-amak bere umeak garia edo artoa aurkituko daben tokira eroan nai dauz. Baiña orretarako zur jokatu bear dau.

Gaua igaroten danean, arin eta misterioz beterik illuna estaltzen danean, inuntza abarretatik tantaka jausten asi baiño lenago. basapiztiak euren gordelekura doaz. Gitxitan ikusiko dozuz egunez.

Basoko beste biztanle batzuk illunabarrekoak dira, ugazdun egalariak.

Sagu zarrak deritxegu eta errodun egalari bakarrak dira. Alderdi epeletan baiño ez dira bizi. Gau-enarak elaiak be esaten jake.

Saguzarrai buruz ipuin asko dagoz. Oso gitxi ikusten dabe eta zuzen ibiltzen dira euren belarri bikaiñai esker. Mozorroak jaten dira onak eta naguko lozorrotik urteten diranean, udabarriaren albistea dira, ikusten da enaren edo elaien antza.

Ameriketean sagu-zar mota asko dagoz, geienak onurakorrak, baiña mota bi dagoz an kaltegarriak, arrosatxu deritxona eta odol-edalea. Arrosatxuak ez dira kaltegarriak gizonarentzat, igali-jaleak dira eta kalteak sagardietan, kerixetan eta mastietan egiten dabez. Odol edaleak abere ta

piztien odola edaten dabe eta gizonari be inoiz erasoten dautsoe. Gauza oneik Amazonas-inguruan jazoten dira.

Baiña goazen bedar-artean eta zugatz-artean bizi diran beste pizti batzuk aitatzen.

Zerbal edo Afrika'ko katutzarra errez igoten da zugatzaren gainera. Pizti onein itxurak berak be larritu egiten gaitu.

Millaka tximelet edo mintxi, margo ederrez apainduta, basoko loreen inguruan dabilte ega-biraka, baiña goian, zugatz buru-inguruan, izadi berdearen inguruan egalari ugazdun taldea dago, saguzar antzekoak, pota txikia esaterako. Atzamarrakaz gauzai oratzen ona.

Australia'ko basakatua nagia ta motza da, bere begiak motelak, eskuak uletsuak, egiten dauana geldiro egin bear dau. Olakoak dira loris esaten dautsen ugazdunak. Egunez lo egiten dabe. Maki esaten dautsoena beti alper bizi da eta orduak egiten ditu etxunda eguzkia artzen.

Singapura be arrigarria da: ez da aundia, sagu baten besetkoa, bere musturraren alboetan begi bi izugarriak dauz. Igelaren antzera saltoka ibiltzen da.

Ortzikariak (roedores) dira beste pizti aztergarri batzuk.

Mundu guztiak zabaldua dagoan sendia dira eta batzuk kaltegarriak izaten dira, arrapatzen daben dana jaten dabelako. Ez dira lurralde guztietan bardiñak, tokian tokiko itxurea artu dabelako. Eta euren artean alde aundiak dagoz: "batzuk uretan bizi dira, beste batzuk leorean, beste batzuk zugatzean. Batzuk ule korapillatua dauke, beste batzuk leuna, ba-dira arrantzazko ulea daukenak be.

Zuloak egiten trebeak dira geienak eta txikiak gramoz batzuk baiña ez dauke pisutan eta aundienak 70 k. euki leikez.

Gauza bat dauke guztiak bardiña, ortzikatu (roer) egiten dabela, ortzak erabilli eta erabiltzen ez ba'dabez aundiegi biurtzen jakez eta galduak dira.

Pizti aundiago askoak ortzikariak jan nai dabez, baiña oneik ugaritzen doaz. Arratoi bikote batek eta ondorengoak, inok katerik egiten ez ba'dauste, iru urtean ogei bat milloi arratoi sortuko dabez.

Itxas-ontzietara be sartzen dira eta orrean zabaltzen dabe euren sendia mundu osora. Jatorriz Asia'koak dira.

Piztitxu oneik inoiz izurritea, pestea, be ekarri dabe.

Ortzikarien artean ezin itzi aiatu barik, erbiak, untxiak, txintxillak, kastoreak... Janari ta jantzi be izaten doguz.

Jakintsuak euren saioak egiteko saguak eta kuiak artzen dabez.

OLAZAR'tar Martin'ek moldatua

SANTIO-BIDEA TA GURE GALAKSIA

Gure galaxia izarbela eta izar askoren moltzoa edo moltzoen moltzoa da. Ez dakigu garbi zenbat izar diran, bai 30 000 milloi. Eta ardatzetik igaroten dan lerroak 50 000 argi-urteko bidea dau eta orren erdia baiño gitxitxua-go lodieran 20 000 argi-urte.

Gaslaxia osoak bere buruari bira emoten dautso eta olako bira bat osotzeko 300 milloi urte bear ditu.

Eta galaxia aundi orren barruan eta milloiak izarren artean izar bat da gure eguzkia bere inguruan izarbelak daroazela.

Izar guzti orreik begi utsez ikusten doguz.

ZODIAKOA: Orain 6000 urte dirala gaur zori txarreko guda dala-ta ain ezagun dogun Bagdad urian, Eufrates ibaiaren alboan, Kaldea'n, astrologoak bizi ziran izarretara begira eta amabi izar-moltzo edo konstelaziño izendatu ebezan eta eguzkia ille bakoitxean olako izar-moltzo batetik igaroten dala ikusi eben eta eguzkiaren bide orre-ri zodiako ipiñi eutsoen izena. Izar-moltzorik geienai, barriz, piztien edo abereen izenak ipiñi eutsezan: Aries, Taururs, Jeminis, Kantzer, Leo, Birgo, Libra, Skorpio, Sajitarium, Kaprikornium, Akuarium eta Piszis.

Astrologo orrein ustea zan izarrek gure bizitzako jazokizunetan zer-ikusia ebela, gure jaiotza aurretik bizitza osoa izarretan idatzita ba'lego lez. Nostradamus izan zan erdi-aroan idazki orreik gizarte osorako irakurten onena. Gaur be asko dira oroskopoa jakin-naian aztuekana joaten diranak.

SANTIO-BIDEA: Ortzian ikusten dogun izar-zerrenda bateri Santio-Bidea deritxo, Konpostela'ra joiazenak norantza joan bear eben agertzen ebalako. Esne-bidea edo "Via Lactea" be esaten jako, ortzian jainko-eme bat joan zala esnea eroaten eta bidean jausten jakon esnea zirala izar orreik, diñoalako antxiñako kondaira batek.

Santio-Bidearen arkuak lurbira osoa inguratzen dau, baiña guk beti ikusten dogu alde bat bera ipar-aldean bizi garalako, egoaldean bizi diranak beste alde ikusten dabe, beste izar batzuk, eta ekuador edo lur-garran bizi diranak urte osoan ikusten dabe dana.

Ipar-aldekoak ikusten doguzan izar-moltzoak oneik dira: Artz-eme nagusia (osa mayor) da ezagunena eta lau izarreko gurdi baten antza dauko eta beste iru izarrek bidea erakusten dabe ipar-izarra aurkitzeko. Au artz-eme txikiaren mandoen musturrean dago dizdiratsu.

Artz-emeagandik urrean daukagu udabarrian Arturo izarra eta ipar-izarraren beste aldera Leo izar-moltzoa eta Regulus onen izarrik argiena. Udan Lira da argitsuena,

Zisne izarra ondoan dauala.

Izar ezagunen artean aundiena dan Antares dago Skorpio'n. Or dagoz udazkenean Pegaso eta Andromeda. Neguan gurdilaria dan izar-moltzoa. Or ikusten da Orion eta emendik 300 argi-urtera Pleiadeak eta egoaldean Sirio, izarrik aundiena eta iru eguzki bearko litzakez, neurritz, onen antzeko bat egiteko. Emendik 8 argi-urtera dago.

IZAR-MOLTZOAK (KONSTELAZIÑOAK): Ez dira besterik izar-pillo bat batuta baiño, naizta gure begientzat izar bakarraren antzera agertu.

Batzui pikortsuak esaten jake orban-antzeko zuriak barruan daukezelako, baiña bakoitxa izar-pillo bat dira eta olako izar batetik bestera milla eguzko sartzeko besteko bidea dago. Tukan moltzoak, esaterako, 50 000 izar daukaz barruan eta gure begientzat pelotatxu bi dira. Emendik ara 35 000 argi-urteko bidea dago.

IZAR-LAÑOAK (NEBULOSAK): Odeien antza dauke eta argia dariela dagoz. Andromeda, esaterako, elipse tankerakoa da, oso dizdiratsua.

IZARREN BIZIA: Izarrak, eguzkia bera be bai, gaia dira, materia, eta gai ori erreten dago, orregaitik izar batzuk amatetan doaz.

Ikusten doguzan izan asko antxiña amatauta egon leitekez eta guk bidean datorren argia ikusi millak urteetan.

Batzuk otzituta dagoz eta orreik margo gorri-illuna dauke, erdi otz dagozenezan margo oria edo beillegia artzen dabe eta beroen dagozan izarrak zuri-urdiñak dira.

Orregaitik, izarrak euren argitasuna aldatzen doaz, batzuk bat.batean beste batzuk astiro. Erreten dagoan izarri "noba" deritxo.

IZAR IGESTIAK EDO "FUGAZES" esaten dautsagu gabaz arin alde batetik bestera ikusten doguzanai, jausi egiten dirala dirudi. Baiña orreik ez dira izarrak, meteorok dira. Izaberlen edo planeten zatiak dira. Aizera sartzen diranean berotu eta lurrundu egiten dira. Ez dauke ba, segundu batzutako bizia baiño. Iñoz baten bat lurrera be jausten da.

OLAZAR'tar Martin'ek eratu

GURE EUROPA

Gure Europa au Asia'ren zati bat dala dirudi.

Oso-osorik dago lurraren epel-aldian, lurralde ezoa ta basamortu-bakoa da eta irutatik bi lau-aldiak dira.

Garia, lekak, barazkiak, frutak eta lorak ugari emoten dauz.

Mendiak ba-dagoz, baiña zarrak eta erpin biribildunak, Alpeetako Mont Blanc, 4807 m.'koa da aundiena.

Orregaitik mendi-egaletan basoak eta soloak ugari dagoz. Ba-dagoz Alpeetan, orregaitiño, betiko edurrak eta lei-tokiak eta, ondoren lez, ibai zabalak, esaterako Rodano, Rin eta Danubio. Orreitan sortzen da "ikatz zuria" deritxon tximist-indarra..

Ibai orreik bide egokiak dira ekarri bear diran eroskiak ekarteko, esaterako ikatza, arorioa... Baiña neguan iparraldeko ibaiak izoztu egiten dira Finlandia'n, Suezia'n, Noruega'n eta Errusian.

Europa'k biztanle asko dauz: landak jente gitxi dauke baiña uriak, langintzari eskerrak, milloika biztanlekoak dira.

Zurien lurraldea dogu Europa, baiña millaka datoz Asia'tik eta Afrika'tik. Geroago ta geiago.

25 laterri dira Europa-barruan eta Errusia erdiz-erdi da Europa ta Asia.

Geroago ta biziagoa da Europa'tarren alkartasun-egarria, eta onek beronen frutuak emoten diardu, oraintxe Europa'ko Laterri-Lege Nagusia onartzen diarduela. Ameriketako Laterri Batuen antzeko zerbait sortu nai

dabe, batez be salerosketarako mundu osoko azokan indarra eukiteko, norgeiangoan irabazteko.

Euskalerrriak beti izan dau Europa orretara sartzeko gogoia, Jose Antonio Agirre bera asita, baiña España'tik aske izatea lortu-ondoren. Ba- dauka Euskalerrriak Europa'ra zer eroan, batez be erri bakotzak zaindu bear dauan nortasuna zaintzea. Olako erri asko dagoz Europa'n, eundak, motel bizi diranak Eta nortasuna galtzen dauan erriak ez dau fruturik emoten gizartean, Ego-Ameriketean agiri dan lez.

Laterrien Europa barik aberrien Europa nai geunke. Gaurkoz laterriak agertzen dira nagusi eta orregaitik euskaldunok ezetza emongo dautsagu Euroopa'ren Laterri-Lege Nagusi orreri.

Europa'ko bereizitasunen artean oneik gogoratuko doguz, langintza edo industrietatik aparte: Iparraldeko baserrietan aberegintza, Suezia'ko ur-jauziak, Olanda'ko lorategiak itxasoa baiño berragoko maillan, arda-tokiak Errioxa'n, Bordele'n, Baldepeñas'en, Xerez'en..., Kortxo'lekuak España ta Portugale'ko egoaldean, Italia'ko Apenino-inguruetan be arda-leku onak, orio-landarak ugari Lurrarte itxas-inguruan, iparraldean baso baltzak dira irabazpide, tabakoa be ba-dago Errumania'n, eta garia leku askotan. Arraintza da irabazpide ona itxas-ondoko errialdeetan.

OLAZAR'tar Martin'ek

ARABIARRAK ETA BEREBERAK

Arabiarrak aize-bolada baten antzera igaro ziran Ipar-Afrika'tik eta España-Frantze'tik igaro eta Poitiers'eraíño eldu ziran.

Arabiarrak Afrika'ra etorri ziranean bereberak, enda zarra, bizi ziran an eta oneik eta an aurkitzen ziran kristiñauen eleizbarruti asko be musuman biurtu ebezan.

Jakintza aurreratua zabaldu eben arabiarrak Kordoba'tik Ipar-Afrika'ra eta jauregi ta mezkita eder asko egin ebezan.

1330 m. urtean beste nomada edo ibiltari batzuk, arabiarrak oneik be, etorri ziran eta euren menpean artu eben Ipar-Afrika eta bereberak itxas-ertzera bultzatu ebezan. Lengo nekazari eta artzaiñak itxas-gizon trebe biurtu ziran.

Almoadeak eta almorabideak etorri ziran gero. Eta urrengo "Milla ta bat gauak" liburuko erregeak.

Iru zatitan geratu zan Ipar-Afrika: Tunez, Aljer eta Marrakiz.

Marrakiz'en gariak jarraitzen dau. Tunizia ta Aljeria'n itxas-lapurak ziran nagusi. Or izan zan Mungia'ko Matxin'en eta Bizar-Gorri'ren arteko burrukea eta Matxin'en martiritza, Andrea Doriak iges egin-ondoren.

Olazar'tar Martin'ek

ARITZ BAKARTIA

Entzule nebazan kaleko uso eta txolarreak, baita aurreko etxe erraldoiaren teilatuean atsedena artzen eben saguzar taldea be; edo eta kale kantoiko semaforoa, koloreen bitartez itzegiten eban semaforo zelebrea eta bere saietsean urtaroen barri emailea zan aritz andia; neguan burusoil eta Udabarri eta Udan arroparik ederrenekin agertzen zana.

Nire bibolinaren doinuaren entzuleak ziran guztiak. Ala ateratzen neban bizitzeko dirua, bibolina jotzen ain zuzen be.

Goizero nire kale kantoi gogokoenean biltzen ginan danak, eta bibolin doinuaren lilurapean jendeari mundutik isolatuta biziko bazan moduan senti arazten geneutson.

Gauero aritz andiaren beso sendoen segurtasunera urbiltzen nintzan, eta berarekin izketa gozoan loak artzen nindun. Aize egunetan aritzak, are eta ozenago itzegiten eban, asarre balego bezala. Orrelako egunak aprobetxatzen ebazan bere barneko saminak kanporatzeko. Izan be, jendeak jakin ez arren, itotzen ari zan porlanez inguratutako lurzoru leor aretan. Txoriak be, gertakari aretaz oarturik, alegintzen ziran, aldarretatik eldu, eta airean lur opa-roago batetara eramaten, baina sustraiak sakonegi edatuak eukozan, ur tanta bakanak bildu asmoz.

Aizete bortitzak be alegintzen ziran zuaitza lekuz aldatzen, baina okertzea bakarrik lortzen eben.

Azken bi urteetan, adar txikiak asarre egozan, eta euron edertasuna ez erakustea erabaki eben, orrela berde agertu bearrean, marroi eta zimur agertzen ziran jendearen begi aurrean.

Nik egunero, bibolin doinuak eskeintzen neutzoan, eta orregaz batera itz gozoak, bizi-poza berbiztu gurean, baina saminaren orroak gortuta eukien. Eta ozen itauntzen neutson:

– Zer egin daikegu zu pozago ikusteko?

Baina zuaitzaren itzak asperen bihurturik eltzen ziran nire belarrietara.

– Oso nekaturik aurkitzen naiz, indarrik barik, gustora besarkatuko neuke lur osasuntsuago bat nere sustrai sendoekin.

Egunetik egunera edertasuna galduz joian, 300 urtetan maitale askoren altzoa izandako aritz bakartia. Zenbat eta zenbat ikasle, abokatu, mediku eta beste ainbat ofiziotako pertsonak bilduko eta ziran zuaitzaren adiskidetasunarekin batera bere gerizpean!

Orain ez zan inor gelditzen zuaitz inguran argazkiak ataraten, edo aren maitasunaren barri zuaitz nekatuari emoteko asmoaz.

Udabarri barri bat be iritsi zan irira, baina urte aretan aritza ez zan neguko lozorrotik esnatu. Nik neure indar guztiekin deitzen neutson:

– Izartu lagun zaarra, indartu txoriek euren abiak egin dagiezan zeure magalean!

Eta zuaitzaren barrenetik, ez zan erantzun ez irri bakar bat be eltzen. Etxipenak eraginda, oraingoan berba egin bearrean, aize garbiaren eta ur freskoaren oroitzapenak pizten eutsozan doinuak atara ziran nire bibolinaren soka artetik zuaitzaren keinu txikiak bilatu gurean. Baina zuaitzak mutu jarraitzen eban, esnatzeko gogorik barik.

Orduan konturatu nintzan neu aretan, zuaitzak, azkenengo atsa eman ebala eta nire doinuak alferrikakoak izan zirala.

Dolu egun aretan, biotza oraindik erdibituta neukola, nire entzulea zan txolarre bat, kantu bizian zeozer esan gurako baleust bezala bagira neukon. Esan gura eustana ikusikeran nire samina ainbatean samurtu zan. Izan be, igaro barri geneukon neguan zuaitzak bere bizi-iraupenean egindako azken aleginaren frutua ikusteko aukerea izan neban, au da, ezkur batetik sortu barri zan kimu lerdan eta osasuntsu bat.

Neure eskuetan artu eta erreka bizi batek erdibitzen eban arizti batean birlandatu neban urteetan, egun onetan eta baita txarretan be adiskide neban aritzaren ondorengo.

Aritz zarra salbatzerik izan en neban lez, zin egin neban, beraren ondorengoak, berak baino bizi obeago izango ebela, eta ez jakola inoz lurrik, ez doinu gozorik faltako.

ZIORTZA ARRIEN ORBE

LANGILEA

Euskaldun gizon baserritarra
biziaren billa doa
mendi bizkarrak, gogoz, garbituz
atxur zorrotzen erara,
seme alabak ditu gogoan
euren etorkizunera,
gose larriak il ez dagizan
ezbearrak zapalduta.

Lenen lenengo bizitza on bat
izan begie lurrean,
osasun argi dizdiratsuz
indartuta oin gainean,
eskola kontuz argiturikan
buru zuriak aidean,
ilun baltzean il ez daitezan
zulorik sakonenean.

Amabietan kanpaia dator
deika torreko puntatik,
euskaldun jende sinimentsuak
sinismenez erantzunik,
gora txapela, burua argi,
biotza zabal zabalik,
otoi maitea Aitarentzako
gogoaren barrenetik.

Solo ederrak, ondo, dakarki
giro barria lurrera,
or, emen, ta an, itxura ona
agertzen dau azalera,
landara txiki osasuntsuak,
bizi, datoz lur gailera,
gogo onenaz eguzkiari
besarkada emotera.

PAULIN